

The Handmaid's Tale

ASKE IZAN NAHI DUT, EZ AUSART

The Handmaid's Tale telesailak, Margaret Atwood idazlearen eleberrian oinarrituta, etorkizun distopiko batean kokatzen gaitu. Diktadura fundamentalista moduko bat ezarri da eta emakume gazteak ohelagun gisa bizitzera behartuak izan dira, beraien jaunari seme-alabak "emateko". AEBetako presidentea eta kongresukide gehienak hil ostean, erregimen teokratiko bat ezarri da, hau da, buruzagi politikoak eta erlijiosoak bat datozen eta bertako erlijioak gobernuaren politikan eragin handia duen sistema politikoa.



Gaizka Izagirre

@Gaizka_Izagirre

Hortik aurrera, AEBak "Gilead Errepublik" izenez ezagutuko dira. Gizarte berri horretan balore moderno gehienak desagertu dira. Gilead-en hedatu den ugalkortasun arazo larri bat dela eta, emakumeak bigarren planora baztertuak dituzte, objektu huts bilakatuko dira eta haien obarioak bakarrik hartuko dituzte baliagarritzat.

Black Mirror eta batez ere *Children of men* bezalako kontakizun bikainetatik zuzenean edaten duen istorio ilun eta gogor honen protagonista June da, Elissabet Moss aktore bikainak era zoragarrian gorpuzturikoa –urteko izendapen guztietan egotea espero dut–. Altxamendu puritano horren aurretik argitaletxe batean ari zen lanean eta diktaduraren hasierako fasean familia osoa galdu zuen. Aurreko bizitzako oroi-tzapenei eutsiz bizi da, nahiz eta bada-kien senideak berriro topatzeko aukera oso urria dela. Baina June –Offred izendatua– tinko mantentzen duen euskarri bakarra hori da. Hori eta, noizbehinka, barrenetik ateratzen saiatzen den ausardia –nahiz eta "aske izan nahi dut, ez ausart" leloa den telesaileko emakume guztien garunean itsatsirik dagoena, beren "nagusien" kapritxoan menpe bizitza miserable eta gogor baten lokatz nazkagarrian harrapatu bizi baitira–.



Gezurra dirudien arren, argumen- tu harrigarri hori ez da telesail honen alde sendoena –ez bakarra behintzat–, "nola" kontatua dagoen are latzagoa baita. Teknikoki bikaina da, ia perfek- tua, esango nuke. Planoen antolaketa eta egitura koherentzia osoz egina dago. Sinbolismoz eta esanahi ezkutuz karga- turik dauden eta margolari batek eginak diruditen konposaketa itzelak aurki dai- tezke, leihoetatik etengabe sartzen di- ren eguzki izpiek transmititzen dutena, adibidez.

Horrez gain, hasieratik erakusten duen zerbait da erritmoaren kontrol mi- limetrikoko eta oso zehatza. Era zoraga- rrian tartekaturiko *flashback* batzuen bitartez, Juneren mundua lehenago nolakoa zen erakusten du. Protagonis- taren off-ahotsa eta sentimenduz be-

teriko irudi bortitzen bitartez, ikuslea nokeatuta uzten du. Kontrapuntu gisa, abestien aukeraketa eta muntaia oso eraginkor bati esker, orainaldia eta ira- ganaren arteko kontrastea era ikaraga- rrian igortzea lortzen du. Elementu guz- ti horien batuketarekin, atal guztietan errusiar mendien sentimendu moduko batean igoarazten gaitu *The Handmaid's Tale*-k. Eta hori gutxi balitz, maisutasu- nez idatzitako gidoi zoragarria ere gehi- tu behar diogu. Hari askeak topatzea ezinezkoa den horietakoa.

Badakizue beraz, aurtien telesail be- rri baten bila bazabiltzate, hau izan li- teke aukeraketa bikainena –eta baita gogorrenena ere, kontuz!–. Gainera, ai- tzakiarik ez duzue, hamar atalak Eus- kal Herrian HBOren bitartez ikus ditza- kezue. ■